

2.4.1.

HERRITARREN SEGURTASUNA

EREMU PUBLIKOAREN KUDEAKETA

JARDUERAK BIDE PUBLIKOAN

BAIMENDUTAKO JARDUERAK	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Kirol-jarduerak	64	52	61	68	68	66	71
Eskeko mahaia eta mahai informatiboak	51	54	67	59	68	81	91
Kultura-jarduerak	12	5	15	12	27	17	27
Erakusketak eta publizitate-kanpainak	40	33	43	39	47	51	8
Informazio- eta publizitate-autobusak	27	48	33	17	11	7	11
Merkataritza-jarduerak	20	33	38	31	25	17	69
Festa-ekitaldiak	235	274	254	271	201	186	179
Desfileak	50	59	90	68	83	88	112
Filmaketak	15	17	19	24	24	19	32
Auzoetako festak	11	11	12	11	12	12	27
Askotariko baimenak	9	54	30	28	53	86	152
Terrazak	117	147	174	168	110	104	139
Jarduerak sanferminetan	91	44	48	44	89	83	110
GUZTIRA	742	831	907	840	818	817	1.028

TERRAZAK ETA ELEMENTUAK BIDE PUBLIKOAN

2019ko amaieran, 714 lizentzia emanda zeuden bide publikoan terrazak jartzeko, eta 86 lizentzia bertze era batzuetako okupazioetarako (loreontzi-euskarriak, erakustokiak, etab.).

MANIFESTAZIOAK ETA ELKARRETARATZEAK

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrak txostena eman du Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, gero, zirkulazioa kontrolatu du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira, 900 ekitaldi egin ziren; 785 elkarretaratze eta 115 manifestazio.

GANADU-FERIAK

Sanferminetako ganadu-feria tradizionala, uztailaren 7an egiten da, San Fermin egunean, Iruñeko Agustindarren industrialdeko 14.300 m²-ko lursail batean; Espainiako iparraldeko garrantzitsuenetako bat da. Zaldi-aziendaren feria da: zaldiak, zaldikumeak, astoak eta mandoak. Autonomia-erkidegoetako abeltzainak, tratulariak eta zaldi-zaleak etorri ohi dira. 133 eskorta eta hipodromo bat jarri dira, abereak erakusteko, eta 56 abeltzain etorri da, guztira 510 abelbururekin.

Urteko bigarren ganadu-feria sanmigeletakoa da, irailaren 29an egiten dena, hori ere Agustindarren industrialdean. Orduan, 91 eskorta arrunt, 12 bikoitz eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri zituen Udalak.

OBJEKTU GALDUAK

Herritarrek entregatzen dituzten objektu guztiak erregistratu egiten dira datu-base bakar batean. Gehienak, polizia-zerbitzuek, posta-bulegoek, eskualdeko hiri-garraioaren enpresa esleipendunak eta merkataritzako beste entitate batzuek –hipermerkatuek, kasu– entregatzen dituzte. Objektuak udal-egoitzetan gelditzen dira gordailuan, eta bertako langileak jabeak aurkitzen saiatzen dira. 2019an, guztira, 9.865 objektu erregistratu ziren; 2018an, berriz, 9.478. Jabeei 5.301 itzuli zitzaizkien (4.346, 2018an).

BERTZE ZENBAIT JARDUKETA

LANDABENGO AZOKA

Guztira 139 salmenta-postu esleitu zitzaizkien beste horrenbeste titularri. Haietatik 57, produktu jangarrien eremukoak, eta 82 salmenta-postuk jangarriak ez diren produktuak saltzen dituzte. Ostalaritza-jarduerak ez daude baimenduak. Urteko igande guztietan dago zabalik, uztail eta abuztukoetan izan ezik, 09:00etatik 14:30era.

ERREGEEN DESFILEA

Segurtasun-neurriak hartu ziren desfilearen ibilbidean istripuak eragozteko, Foruen plazatik Gazteluko plazaraino. Adibidez, babes-hesia jarri zen, 1.400 hesi iraulezin baino gehiago, eta orgetan lurrerainoko oihalak jartzea exijitu zen, eta desfileko pajeek alboak zaintzea.